



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAIA
Ministerio de Cultura (Euzkadi)
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Ministerio de Cultura (España)



EUSKARA BIZI



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua



OSPATU ETA OROITU
EUSKARAZ
CELEBRA Y RECUERDA
EN EUSKERA



Ezkontza sasoiari, umeei jaunartzea egin dutenean edota norbait hil denean oroigarriak, eskelak edota edonolako gonbidapenak euskaraz ere egin nahi eta eredurik ez duzue aurkitu? Liburuxka honen bidez, hutsune hori bete gura izan dugu eta hainbat liburuxka banatu ditugu herriko leku jakin batzuetan, bai eta herriko inprentetan ere zuok kontsultatu ahal izateko.

Irakurri liburuxka eta zeuon gustukoa den zorion-txartel, gonbidapen edota oroigarriren bat aurkitzen baduzue, liburuxkaren atzealdean agertzen den inprentetako batera jo dezakezu eta euretan behar dituzuen zorion-txartelak, gonbidapenak... eskuratu ahal izango dituzue.

Nolanahi ere, kontuan izan hemen agertzen direnak eredu soilak baino ez direla eta era horretako beste testuren bat idatzi nahi izanez gero, euskara zerbitzura jo dezakezuela, bertan nahi duzuen testua egiten edota liburuxkan agertzen direnak moldatzen lagunduko dizuete. Horretarako idatzi gehi@getxo.net helbidera edo deitu telefono honetara: 94 415 22 52. Bertan hizkuntza aholkularitza jasoko duzue eta ezkontzako gonbidapena edota haurraren oroigarria euskara zuzen eta ederrean idatzita joango da.

Liburuxka lagungarri izango zaizuelakoan, har ezazue agur beroa.



Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua

OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ

CELEBRA Y RECUERDA EN EUSKERA

SARRERA INTRODUCCIÓN

En el momento de los preparativos de la boda, en la primera comunión de tus hijas e hijos, o bien cuándo ha fallecido algún allegado y os habéis tenido que encargar de hacer los recordatorios, esquelas, o a la hora de hacer cualquier invitación, ¿no lo habéis podido hacer también en euskera porque nadie os ha proporcionado los medios suficientes para ello? Mediante este libro hemos querido solucionar esa carencia, por ello podréis consultarlo, además de en los sitios más significativos del municipio, en algunas imprentas.

Leed el libro, y si encontráis alguna tarjeta de felicitación, invitación o recordatorio que os guste, podéis dirigiros a cualquiera de las imprentas que aparecen al final del mismo y allí os facilitarán cualquier tarjeta, invitación... que queráis.

Aún así, debéis saber que los textos que se recogen en esta pequeña guía, no son más que una muestra de referencia. Si deseáis realizar cualquier otro texto de las mismas características podéis dirigiros al Servicio de euskera y os ayudarán, con sumo agrado, a modificar o crear el texto que deseéis, para ello os facilitamos la dirección de correo electrónico gehi@getxo.net, o también podéis llamar al número 94 415 22 52. Os ofrecerán asesoría lingüística y, además, vuestras invitaciones o recordatorios estarán escritos correctamente en euskera.

Esperamos que el libro sea de vuestra ayuda, recibid un cordial saludo.

GONBIDAPENAK INVITACIONES

BATAIOA BAUTIZO **(A)**

Julen Madera Ortizek eta Luisa Etxebarriak

Atsegin handiz gonbidatzen zaituztegu alaba Mirenen bataio eguneko festara. Datorren igandean, hilaren 8an, ospatuko dugu San Nikolas elizan, eguerdiko 12etan.

Algortan, 2006ko uztailaren 1ean

Julen Madera Ortiz y Luisa Etxebarria

Os invitan con sumo gusto a la fiesta que celebraremos el día del bautizo de nuestra hija Miren. Lo celebraremos el próximo domingo, día 8, en la iglesia de San Nicolás a las 12 del mediodía.

Algorta, 1 de julio de 2006

(A) 1

Maialen Urkidi Zabala

Gure alaba bataiatuko dugu hilaren 11n, zapatuan, arratsaldeko 8etan San Antonio elizan. Afaria Igeretxe jatetxean egingo dugu. Pozik hartuko zaituztegu.

Getxon, 2006ko irailaren 7an

Maialen Urkidi Zabala

Nuestra hija será bautizada el día 11, sábado, a las 8 de la tarde en la iglesia de San Antonio. La cena será en el restaurante Igeretxe. Estaremos encantados de que celebréis ese día con nosotros.

Getxo, 7 de septiembre de 2006

(A) 2

LEHEN JAUNARTZEA PRIMERA COMUNIÓN **(B)**

Jon Muniain Lopez haurrak lehenengoz hartuko du Eukaristiaren Sakramentua, 2006ko maiatzaren 9an, Areetako Santa Ana elizan.

Areetan, 2006ko maiatzean

Jon Muniain Lopez recibirá por primera vez el Sacramento de la Eucaristía, el 9 de mayo de 2006, en la iglesia Santa Ana de Areta.

Areta, mayo de 2006

(B) 1

Itsasne Martinez Garcia umeak bere Lehen Jaunartzea egingo du 2006ko maiatzaren 10ean, Leioako San Joan Bataiatzailea parrokian goizeko 11etan, eta atsegin handiz gonbidatzen zaituztegu elizkizunera eta gero Goieztzi jatetxean egingo dugun bazkarira.

Leioan, 2006ko maiatzean

La niña Itsasne Martinez Garcia recibirá su Primera Comuni3n el 10 de mayo de 2006, en la iglesia San Juan Bautista de Leioa a las 11 de la ma1ana, y estamos encantados de invitaros al oficio y a la comida que luego celebraremos en el restaurante Goieztzi.

Leioa, mayo de 2006

B 2

Maidet Etxaburu Erdozia

Nire Lehen Jaunartzea egingo dut 2006ko ekainaren 15ean, Getxoko Andramari elizan eguerdiko 12etan, gero bazkaltzera joango gara Errotabarri jatetxera. Etorriko zarete, ezta?

Getxon, 2006ko ekainean

Maidet Etxaburu Erdozia

Recibiré mi Primera Comuni3n el 15 de junio de 2006, en la iglesia Andramari de Getxo a las 12 del mediodía. Luego iremos a comer al restaurante Errotabarri. Os esperamos.

Getxo, junio de 2006

B 3

U R T E B E T E T Z E A

C U M P L E A 1 O S

Nire laguntxoari:

Hilaren 15ean nire eguna izan zen eta hori ospatzeko txokolate-jana egingo dugu datorren ostegunean gure etxean, arratsaldeko 6etan. Etorzen bazara, ondo-ondo pasatuko dugu eta jolasak egingo ditugu.
Zure lagun Ainara,

Getxon, 2006ko abenduaren 22an

A mi amiguito:

El día 15 de este mes ha sido mi cumplea1os y para celebrarlo vamos a hacer una gran chocolatada el próximo jueves en mi casa a las 6 de la tarde.
Si vienes, jugaremos y nos lo pasaremos genial.
Tu amiga Ainara,

Getxo, 22 de diciembre de 2006

D 1

Nire lagun Miren:

Bihar nire urtebetetze eguna izango da eta zu nirekin egotea nahi dut elkarrekin ondo-ondo pasatzeko. Etorri gure etxera arratsaldeko 5etan eta txokolatea jan eta lagun gehiagorekin jolas egingo dugu.

Bihar arte,

Ainhoa Lasa

Negurin, 2006ko irailaren 23an

Mi amiga Miren:

Mañana será mi cumpleaños y quiero que lo celebres conmigo para que podamos pasarlo muy bien juntas. Ven a nuestra casa a las 5 de la tarde y después de comer chocolate jugaremos con más amigas y amigos.

Hasta mañana,

Ainhoa Lasa

Neguri, 23 septiembre de 2006

D 2

E Z K O N T Z A

B O D A **E**

Aitor Garmendiak eta Josune Lopezek

Gogo handiz gonbidatzen zaituztegu gure ezkontzara. Karmengo Ama elizan ospatuko dugu, apirilaren 12an, iluntzeko 8etan.

Horren ostean, Jolastoki jatetxean afalduko dugu.

Aitor Garmendia y Josune Lopez

Tenemos el gusto de invitaros a nuestra boda. La celebraremos en la iglesia de Nuestra Señora del Carmen, el 12 de abril, a las 8 de la tarde.

La cena se servirá en el restaurante Jolastoki.

E 1

Lorenzok eta Martinak

Atsegin handiz adierazten dizuegu ezkondu egingo garela irailaren 12an, arratsaldeko 6etan, Mesedetako Amaren elizan. Gero, Igeretxe jatetxean elkartuko gara, koktela eta afaria izango dugu eta.

Etorriko zaretelakoan,

Telefona: 685-75-42-12

Lorenzo y Martina

Os comunicamos con sumo agrado que nos casamos el 12 de septiembre, a las 6 de la tarde en la iglesia de Nuestra Señora de las Mercedes. Luego nos reuniremos en el restaurante Igeretxe, para disfrutar del cóctel y de la cena.

Esperamos que asistáis,

Teléfono: 685-75-42-12

E 2

Pantxo eta Martin

Luzaroan zain egon eta gero, azkenean heldu da ezkontzeko eguna. Gonbidatuta zaudete gure ezkontzara; irailaren 28an izango da, larunbatean, arratsaldeko 6etan Getxoko udaletxean. Ostean, afaria eta dantza saioa Ercilla hotelean.

Zain izango gaituzue.

Pantxo y Martin

Después de esperar tanto, por fin ha llegado el día de casarnos. Estáis invitados a nuestra boda que se celebrará el 28 de septiembre, sábado, a las 6 de la tarde en el ayuntamiento de Getxo. La cena y el baile tendrán lugar en el hotel Ercilla.

Os esperamos

E 3

Bittor Urizarrek eta Miren Lasuenek

Gogo handiz gonbidatzen zaituztegu gure ezkontzara.

Eguna: 2006ko urtarrilaren 22a

Ekitaldia: Getxoko udaletxean, 18:30ean.

Afaria eta afalostekoa: Goieztzi jatetxean

Estimatuko genuke zu gurekin izatea

Bittor Urizar y Miren Lasuen

Os invitamos con mucho gusto a nuestra boda.

Día: 22 de enero de 2006

Ceremonia: Ayuntamiento de Getxo, 18:30

Cena: Restaurante Goieztzi

Nos encantaría que compartieseis ese día con nosotros.

E 4

Idurre eta Markel

Abuztuaren 22an ezkonduko gara, eguerdiko ordu batean, Getxoko Andramari elizan.

Bazkaria Etxe-Ondo jatetxean egingo dugu eta egun horretan gurekin egotea nahi dugu.

Etortzekoak bazarete, aldez aurretik jakinarazi.

Idurre, 944667811

Markel, 944659875

Getxo, 2006ko maiatza

Idurre y Markel

Nos casamos el 22 de agosto, a las 13:00, en la iglesia Andramari de Getxo. La comida se servirá en el restaurante Etxe-Ondo y queremos que ese día estéis con nosotros.

Se ruega confirmación.

Idurre, 944667811

Markel, 944659875

Getxo, mayo de 2006

E 5

Gure gurasoekin batera
Jose eta Karmen & Manuel eta M.Paz

Davidek eta Sandrak

Atsegin handiz gonbidatzen zaituztegu gure
ezkontzara; apirilaren 28an izango da, eguer-
diko ordu batean, San Martin basilizan.
Bazkaria: Txo erretegian

Baieztatzeko deitu biotako bati
David: 946319045
Sandra: 946317634

Getxon, 2006an

Junto con nuestros padres
Jose y Karmen & Manuel y M.Paz

David y Sandra

Tenemos el gusto de invitaros a nuestra boda; se
celebrará el 28 de abril a la una del mediodía,
en la ermita de San Martín.
La comida: Asador Txo

Se ruega confirmación
David 946319045
Sandra 946317634

Getxo, 2006

E 6

Leire eta Oier

Azkenean heldu da eguna: ezkondu egingo
gara!

Urriaren 22an izango da, ostiralean, arratsaldeko
7:30etan Bilboko Udaletxean. Gero, elkarrekin
ondo ospatzeko afaria eta ostekoa Nervion
hoteleko aretoetan izango dira.
Egun horretan gure ondoan izan nahi zaituztegu!
Zain izango gaituzue

Leire, 944667811
Oier, 944659875

Getxo, 2006ko uztaila

Leire y Oier

Llegó el día: ¡nos casamos!

Será el 22 de octubre, viernes, a las 7:30 de la
tarde en el Ayuntamiento de Bilbo. Luego, para
celebrarlo, nos iremos todos juntos a cenar al
hotel Nervión, después de la cena
continuaremos la fiesta en las salas del
mencionado hotel. Queremos que compartáis
ese día con nosotros. Os esperamos

Leire, 944667811
Oier, 944659875

Getxo, julio de 2006

E 7



ERAKUSKETA

EXPOSICIÓN

Getxon uztailaren 22tik abuztuaren 15era arte egingo dudana argazki erakusketaren inaugurazioa etor zaitez gonbidatzen zaitut. Erakusketaren inaugurazioa Kultur Etxeko aretoan izango da uztailaren 22an, arratsaldeko 7etan.

Egun horretan gure artean izango zarelaokan, eskerrik asko,

Getxon, 2006ko uztailaren 15ean

Te invito a que participes en la inauguración de la exposición fotográfica que realizaré en Getxo desde el 22 de julio hasta el 15 de agosto. La inauguración de la exposición tendrá lugar en la Casa de Cultura el 22 de julio a las 7 de la tarde.

Esperando que ese día estés entre nosotros, muchas gracias,

Getxo, 15 de julio de 2006

 1

INAGURAZIOA INAGURACIÓN

EZKURRA JATETXEA

Laster zabalik

- Pintxo Beroak
- Eguneko Menua
- Musika emanaldiak asteburuetan
- ...

Atsegin handiz gonbidatzen zaitugu datorren ostiralean arratsaldeko 7etan egingo dugun inauguraziora

ETOR ZAITEZ

EZKURRA JATETXEA

Próxima apertura

- Pinchos calientes
- Menú del día
- Conciertos los fines de semana
- ...

Te invitamos con mucho gusto a la inauguración que haremos el próximo viernes a las 7 de la tarde.

ACÉRCATE

 1

ZORION-AGURRAK FELICITACIONES

JAIOTZA

NACIMIENTO **A**

Miren eta Mikelentzat

Jaso ezazue gure zorionik beroena. Pozaren pozez ibiliko zarete, aita-amak izatea ez da-eta egunero gertatzen. Egoera hori berezi-berezia da eta, aldi berean, ederra eta handia, bizitzan sentitu daitekeen gauzarik zoragarriena.

Laster izango gaituzue hor bisitan, zuen alabatxo ezagutzeko. Deituko dizuegu joan aurretik. Berritxo ere zorionak eta ondo izan,

Romon, 2006ko urtarrilaren 4an

Para Miren y Mikel

Recibid nuestra más cordial felicitación. Estaréis más que contentos de haber sido padres, cosa que no ocurre todos los días. Ese acontecimiento es muy especial y a la vez maravilloso, lo más maravilloso que se puede sentir en esta vida.

Pronto iremos a visitaros, para conocer a vuestra hija. Os llamaremos antes de ir. Felicidades otra vez, un saludo,

Romo, 4 de enero de 2006

A 1

Kaixo!

Otsailaren 22an jaio nintzen, Markel dut izena; nire gurasok Unai eta Oihana oso pozik daude eta bihotzez eskertzen dizuete egin didazuen oparia. Atsegin handiz hartuko zaituztegu ni ezagutzen etortzen bazarete gure etxera.

Areetan, 2006ko otsailaren 28an

¡Hola!

Me llamo Markel y nació el 22 de febrero; mis padres son Unai y Oihana, están muy contentos y os agradecen de todo corazón el regalo que me habéis hecho. Os recibiremos con mucho gusto si venís a casa para conocerme.

Areetan, 28 de febrero de 2006

A 2

Bihar zure eguna dela jakin dut eta
bihotz-bihotzez opa dizut egun zoragarria eta
zure etxeoekin ondo-ondo pasatzea.

He sabido que mañana es tu cumpleaños,
te deseo de todo corazón un día muy feliz
y que lo pases muy bien con toda tu familia

B 1

Jaso ezazu gure familiaren izenean zorion
agurrik beroena.
Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula
bihotz-bihotzez.

Jauregi-Lasa Familia

Recibe de parte de nuestra familia la más cor-
dial felicitación.
Te deseamos de todo corazón que sigas así
durante muchos años.

Familia Jauregi-Lasa

B 2

Izan zaitez zorionsu zure urtebetetze egunean
eta urte askoan horrelaxe jarraitu, jator eta
zintzo zure lagunekin eta hain maite dituzun
etxeoekin.

Que pases un día muy feliz el día de tu cum-
pleaños y que durante muchos años sigas igual
de majo y honrado con tus amigos y con tu
familia a la que tanto quieres.

B 3

Zorionak eta urte askotarako!

Jarraitu jator eta denon lagun, orain arte
bezala.

Agur eta musuak

¡Muchas Felicidades!

¡Sigue tan maja y tan buena amiga
como siempre!

Un fuerte abrazo y besos

B 4

Gabon zoriontsuak eta urte berri on.

Feliz Navidad y próspero año nuevo.

D 1

Onena opa diegu gure lagunei!
Urte berri oparo eta zoriontsua.

¡Deseamos lo mejor para nuestros amigos
y amigas! Feliz y próspero año nuevo.

D 2

Gure zorionik zintzoena Gabon hauetan,
eta urte berria osasunez etor dadila.

Nuestra más sincera felicitación para estas
Navidades,
que el año nuevo venga lleno de salud.

D 3

Eguberri on eta urte zoriontsua izan dezazuela.

Feliz Navidad y que tengáis un feliz año nuevo.

D 4

Gabonak bakean eta pozik igaro,
eta urte berri on.

Pasad la Navidades en paz y felicidad,
y feliz año nuevo.

D 5

Ondo-ondo pasa itzazue egun hauek eta
datorren urtean zoriona, osasuna eta alaitasuna
izan daitezela nagusi!!

¡Que paséis unos días muy felices y que el año
que viene reine la felicidad, la salud y la alegría!

D 6



D O L U M I N A K

A Z A L D U

P É S A M E S

M O S T R A R

Benetan atsekabeturik gaude, zure emaztea hil dela jakin dugu eta. Badakizu estimu handian genuela. Ulertzen dugu zure samina eta atsekabea; gurea ere handia da, laguna galdu dugulako.

Ez daukagu hitzik zu kontsolatzeko, baina jakizu gure adiskidetasuna duzula eta gure barru-barruan gogoratuko dugula.

Besarkada handia
Zabala-Elorrieta familia

Estamos realmente afectados porque hemos sabido que tu esposa ha fallecido. Sabes que la apreciábamos mucho. Entendemos tu dolor y sufrimiento; nosotros también lo sentimos, hemos perdido a una gran amiga.

No tenemos palabras para consolarte, pero queremos que sepas que estamos para lo que quieras y que siempre recordaremos a tu mujer.

Un fuerte abrazo
Familia Zabala-Elorrieta

 1

Getxo, 2006ko otsailaren 25a

Lankide hori,

Benetan atsekabez hartu dugu zure aitaren heriotzaren berria. Bera ezagutzeko ohorea izan genuenontzat kolpe mingarria izan da. Beti izango dugu gogoan hain maila handiko gizona. Lankide guztion izenean, sentipenez doluminak bidaltzen dizkizut. Oinazean lagun.

Maria Leturia
Giza Baliabideetako arduraduna

Getxo, 25 de febrero de 2006

Estimado compañero,

Hemos recibido con mucho dolor la noticia de la muerte de tu padre. Ha sido un golpe muy duro para los que tuvimos el honor de conocerlo. Nunca podremos olvidar el recuerdo de un hombre tan extraordinario. Te envío en nombre de todos los compañeros y compañeras nuestro más sentido pesar. Te acompañamos en el sentimiento.

Maria Leturia
Responsable de recursos humanos

 2

Sekulako samina sentitu dugu zuen aita hil dela jakitean. Zuen atsekabearekin bat egiten dugu eta haren aldeko ospakizunetan parte hartuko dugu.

Hemos sentido un gran dolor al saber que ha muerto tu padre. Compartimos tu dolor y participaremos en la ceremonia que se celebrará en su recuerdo.

 3

Gure samina adierazi nahi dizugu, semea
galdu duzulako.
Gogoan dugu zein ona eta jatorra zen. Zurekin
bat egiten dugu eta gogoan izango dugu haren
aldeko ospakizunetan.

Queremos mostrarte nuestro dolor por haber
perdido a tu hijo.
Tenemos presente lo bueno y agradable que
era. Nos unimos a tu dolor y le recordaremos en
las celebraciones que se harán en su honor.

A 4

Atsekabeturik gaude zuen ama hil delako.
Emakume ona zen. Zuen saminarekin bat egiten
dugu. Bene-benetan doluminak.
Besarkada handi bat.

Estamos muy afligidos por la muerte de tu ma-
dre. Era una gran mujer. Nos unimos a tu dolor.
Nuestro más sentido pésame de todo corazón.
Un fuerte abrazo.

A 5

Atsekabe handiz jakin dugu gure lagun eta zuen
ahizpa Maria hil dela. Zaila egiten zaigu gure
sentimenduak adieraztea, denok maite genuen-
eta, beti zegoen prest denoi laguntzeko. Zenbat
une gozo hura gogora ekartzean! Gure
bihotzean eramango dugu beti.

Hemos recibido con gran dolor la muerte de
nuestra amiga y tu hermana María. Es muy
duro demostrar nuestros sentimientos, todos y
todas la queríamos, siempre estaba dispuesta a
ayudarnos. Cuando la recordamos nos llegan a
la memoria una infinidad de buenos momentos.
Siempre la tendremos en nuestros corazones.

Zuen atsekabe eta oroitzapenetan lagun
gaituzue.

Besarkada bat!

Os acompañamos en vuestro dolor y recuerdo
hacia ella.
¡Un abrazo!

A 6

Bixente Goikomendia

Jaso ditugun atsekabezko adierazpenak eta haren alde eskaini dituzuen otoitzengatik eskerrak eman gura dizkizuegu.

Algorta, 2006ko azaroaren 14a

Bixente Goikomendia

Agradecemos las muestras de afecto y condolencias recibidas y las oraciones realizadas por su alma.

Algorta, 14 de noviembre de 2006

B 1

Satur Eriz Lasarte

Familiak Saturren heriotza dela-eta jaso dituen maitasun adierazpenak eta doluminak bihotzez eskertzen dizkizue.

Algorta, 2006ko irailaren 9a

Satur Eriz Lasarte

La Familia de Satur os agradece de todo corazón las muestras de cariño y afecto recibidas por su fallecimiento.

Algorta, 9 de septiembre de 2006

B 2



OROIGARRIAK RECORDATORIOS

BATAIOA

BAUTIZO **A**

Jon Lopez Agirre umeak

Bataioa jaso du 2006ko martxoaren 27an, Getxoko Andramari elizan.

Getxon, 2006ko martxoaren 27an.

El niño Jon López Agirre

Ha sido bautizado el 27 de marzo de 2006 en la iglesia Andramari de Getxo.

Getxo, 27 de marzo de 2006.

A 1

Miren Aldamiz

Nire bataioaren oroigarria
Inazio deunaren eliza

Algorta
2006-03-25

Miren Aldamiz

Recuerdo de mi bautizo
Iglesia de San Ignacio

Algorta
25-03-2006

A 2

LEHEN JAUNARTZEA PRIMERA COMUNIÓN **B**

Marta Fernandez

Nire Lehen Jaunartzearen oroigarria
Santa Ana eliza

Getxo
2006-05-04

Marta Fernández

Recuerdo de mi Primera Comunión
Iglesia de Santa Ana

Getxo
04-05-2006

B 1

Josu Laskurain

Eskerrik asko nirekin egun zoragarri hau pasatzearren,
Nire Lehen Jaunartzearen oroitzapen onaz izatea espero dut
2006-05-04

Josu Laskurain

Muchas gracias por celebrar conmigo este precioso día.
Espero que guardes un buen recuerdo del día de mi Primera Comunión
04-05-2006

B 2

H E R I O T Z A

F A L L E C I M I E N T O

D

Miren Solobenta Altxorta

Jaio zaigu hiltzeko 1923 – 6 – 23
Hil zaigu bizitzeko 2006 – 5 – 30

Miren Solobenta Altxorta

Nació para morir 23-6-1923
Ha muerto para nacer 30-5-2006

D 1

Hil zara baina biziko zara
zu beti gure gogoan.
Itxaropena dugu biltzeko
beriz zurekin zeruan.

Te has ido pero
siempre seguirás en nuestro recuerdo.
Tenemos la esperanza
de reencontrarnos contigo en el cielo.

D 2

Gure ondotik joan zara,
baina beti izango zaitugu gure bihotzean.

Te has marchado de nuestro lado, pero siempre
te tendremos en nuestros corazones.

D 3

Ander Perez de Apodaca

1935-06-25
2006-09-12

Ander Perez de Apodaca

25-06-1935
12-09-2006

D 4

Zure oroimenak indartzen gaitu,
ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.

Tu recuerdo nos da fuerza,
no es un adiós,
sólo un hasta luego.

D 5

Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Por lo que has sido
y has demostrado
jamás te olvidaremos.

D 6

Samindurik dugu bihotza
motel bizitzaren garra.
Gaur faltan sumatzen dugu
zuk emandako indarra.

Tenemos el corazón afligido
la llama de la vida apagada.
Hoy echamos de menos
la fuerza que nos has dado.

D 7

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.

El amor no se apaga nunca.
Y porque no se apaga,
te recordamos.

D 8

LIBURUXKA HONAKO DENDA HAUETAN AURKITU AHAL IZANGO DUZU.

El libro lo tienes a tu disposición en los siguientes establecimientos.

- ARGAZKI LUR (Euskal Color Amezti)
- ARGAZKI LUR (Villamonte)
- LIBRERÍA ZUGATZARTE
- ARNAGA
- BEHIN BATEAN
- BEREZI COLOR
- BOLIVAR ELORDUI LIBURUDENDA
- CIANOPLAN
- COSAS
- EUSKAL COLOR
- FOTO IÑAKI
- FOTO RICARDO
- FOTO Y PAPEL
- FOTOCOPIAS KISER
- HODOI
- IMPRENTA ARENAS
- ITXAS-IKUS
- KOPRINTER
- LADREDO HERMANOS
- LIBRERÍA ERKUDEN
- LIBRERÍA ITZIAR
- LIBRERÍA MAYOR 29
- LIBRERÍA NADAL
- LIBRERÍA PAPELERIA BLOCK
- LIBROS PAPELERIA ANA M^º BOLOIX